



Sotto Voce harizko laukotearen musika emanaldia. - Danok Kideren Musika Topaketei hasiera eman zieten ostiralean, herrian. Sotto Voce harizko laukotearen kontzertuak girotu zuen iluntzea Lasarte-Orian. Harizko lau instrumentuz baliatuta, musika emanaldi atsegina eskaini zuten Brigitarren Komentuan. Merezitako aurkezpenaren ostean, agertokira sartu ziren lau musikariak; Pedro Miguel Aguinaga eta Monika Redondo Biolin jotzaileak, Tomás Ruti biola jotzailea eta Amaia Garcia biolontxelo jotzailea. Ibilbide musikal iraunkorreko profesionalak dira laukak. Gipuzkoako musika-eskola eta kontserbatorioetan irakaskuntzan dihardute eta irakaskuntzan aritzeaz gain, zenbait elkarte sinfoniko eta ganbera taldeetan aritzen dira maiz. Hamahiru abestiz osatutako musika egitarau zabala eskaini zieten komentuan bildutako ikus-entzuleei. Horien guztien artean, asko ziren doinu ezagunak. Isaac Albénizen 'Sevilla', Gabriel Fauréren 'Berceuse', Francis Lópezen 'Violetas imperiales', Consuelo Velázquezzen 'Bésame mucho' eta Francisco Alonsoren 'Maitechu mía' abestiak entzun ahal izan ziren beste zenbaiten artean.

2 SOMOTO EHBilduk Somoto auziaren inguruan jazotakoa salatu du

Lasarte-Oriako EHBilduk Ana Urchueguiaren aurkako kereila onartu zenetik gaur eguneraino eman diren bi gertaera jakitara eman ditu: Udalak izendatutako abokatu Miguel Castellsek duela urte bat kereila eramateari uko egin zion, alkatearen jokaera medio eta Pablo Barrio akusazio partikular bezala aurkeztu da.



3 SALATZEN DUT Ibon Fernandez Iradiren egoera azaleratzen

Sarek larriki gaixo dauden euskal presoaren egoera azalarazteko 'Salatzen dut' kanpaina du martxan. Hori dela eta, Lasarte-Oriako Sarek Ibon Fernandez Iradi herritarra gogoan bi ekin-tza antolatu ditu. Asteazkenean, Maritxu Paulus Ibonen abokatuak eta Ane Fernandez arrebak presoaren gaixotasunaz mintzo ziren mahai-inguru batean.

4 KULTURA Kalitate handiko XXIII. Akordeoi jaialdia

Larunbatean, Zero Sette akordeoi orkestrak antolatzen duen Akordeoi jaialdia izango da Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian. Aurten herriko orkestrak bisitariei utziko die protagonismoa. Maila handiko musikariak izango dira oholtzan: Julien Gonzales, Clak'Tet eta Susana Cencillo eta Javier Perez.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

**gama altuko
2 mó betaurreko
progresibo
197€**

www.multipopticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

**Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE**

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

SOMOTO

EHBilduk alkatearen jarrera salatu du

EHBilduk Castells abokatuari babes ematen dion mozioa aurkeztuko du Udalbatzarrean

Ana Urchueguiaren aurkako kereilaren inguruan hainbat gertakizun jazo dira azken urtean. Miguel Castells abokatuak iaz kereila eramateari uko egin zion, baita Pablo Barrio akusazio partikular bezala aurkeztu dela ere. EHBilduk lehen gertaera salatu eta Pablo Barriori bere babes osoa ematen diola jakitera eman du.

Lasarte-Oriako EHBilduk Somoto auzian azken urtean eman diren bi gertakizunen berri eman zuen asteazken arratsaldean egindako agerraldian.

2015eko martxoaren 4an Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak emandako autoan, prebarikazio eta fondo publikoak bidegabe erabiltzeagatik Ana Urchueguiaren kontrako kereila tramitera onartu zen.

Geroztik, Jesus Zaballos alkateak izandako jarreraren ondorioz, aurreko legegintzaldian Lasarte-Oriako Udalak izendatutako abokatuaren, Castellsen uko egite behartua eman da eta bestetik, Pablo Barrio akusazio partikular moduan aurkeztu da.

EHBilduko kideek bi arrazoi eskaini zituzten gertaera hauen berri orain arte publikoki ez emateko. "Alde bategatik, azken urteko hauteskunde zikloa dela, balizko erabilpen elektoralista saihestu nahi izan dugu guztiaren gainetik. Eta bestetik, ez dugu inongo interferentzia sortu nahi izan epaitegiak hartu behar zituen hainbat erabakiren inguruan. Lasarteoriatarren interesak lehenetsi ditugu beti beste edozeren gainetik", azaldu zuten.

Abokatuaren uko egitea

EHBilduko kideek alkatetzak emandako dokumentuetan oinarritutako datuak eskaini zituen bere agerraldian.

Horren arabera, 2015eko ekainaren 24an, gobernu berria sartu eta berehala, alkatea eta abokatuak bildu

ziren alkatetzako bulegoan. Bertan, alkateak Udal Idazkaritzan 687/2015-I kereilaren kopia uztea eskatu zion abokatuari. "Bulego estrajudizial batean uztearen eskaeraren aurrean, behin tramitera onartuta kereila sekretupean zegoela eta ezin zuela hori egin adierazi zuen abokatuak". Nahiz eta, EHBilduk azpimarratzen duenez, Alkateak berak esan kereilaren kopia bazuela, "ez dakigu zein bidetik, baina baieztapen hau ez du inoiz gezurtatu, eta argitu beharko luke".

Alkateak ekaina amaieran eskaera berbera egiten zuen posta ziurtatu bidez eta telefonoz. Kasu honetan, hizketa behin eta berriz moztuz, alkateak leialtasun falta leporatzen zion abokatuari.

Hau guztiaz gain, abokatuak behin eta berriz alkateari bere bulegora joateko eskaini ziola jakitera eman zuten: "Alkateak ez du inoiz gonbidapena onartu".

Alkatearen jarrera honen aurrean, 2015eko uztailaren 7an abokatuak idazki bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoaren aurrean, zeinetan Zaballos alkatearen jarrera salatzen zuen.

Besteak beste, alkatearen presio eta eskaerak legea eta bere betebeharrak estatutario eta deontologikoak haustea zekarrela salatzen zuen.

Orokorrean bere bulegoan erabakirik alkateak izandako jokaera iraingarria zela azpimarratzen zuen.

Era berean, Abokatuaren Elkargoaren babes ematen dion mozioa aurkeztuko du Udalbatzarrean



EHBilduko zinegotziak eta Pablo Barrio asteazkenean egindako agerraldian.

du, "Zaballos jaunaren jokaraz sekretuaren, profesionaltasunaren eta sumarioko betebeharren aurka doa, baita abokatuaren duintasuna, askatasuna eta independentziaren kontra ere".

2015eko uztailaren 30ean Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoaren Gobernu Organoak aho batez eskatutako babes ematea adostu zuen. Abokatuaren Elkargoaren Dekanoak alkateari eskutitz bat bidali zion, alkateak izandako jarrera gaitzetsi eta Elkargoaren kezka azalduz, izan ere, jarduketan profesional honetan sekretua bermatzeak legea ez haustea eskatzen baitie profesionaliei.

Hau guztiagatik, abokatuak uko egin zion kereila eramateari, "Zaballos jaunaren jokaerak nire lana dagoen baldintzetan eta modu eraginkorrean aurrera eramatea eragozten du".

Azkenik, 2015eko irailaren 3an Zaballos jaunak Abokatuaren Elkargoari bidalitako idazkian "jokaera partziala" edukitzea leporatzen dio.

EHBilduk jakitera eman zuenez, Bozeramaileen

batzordeak abokatu berria izendatu zuen, baina Castellsen dokumentazio guztia aztertzeke denbora behar duela eta horrek denbora eramango duela azpimarratu zuten.

Akusazio partikularra

Bestalde, Ana Urchuegia Udal Gobernuan dagoen alderdiko kidea izatea eta horrek lasarteoriatarren interesen defentsan izan dezakeen eragin okerraz kezkatuta, Pablo Barrio jaunak akusazio partikular moduan pertsonatzea erabaki zuela jakitera eman zuen EHBilduk.

"Lehen aipatutako gertaerak eta horietan alkatetzak izandako jarrerak indartu baino ez dute egin erabaki hori. Horregatik, epaileak jarritako 9.000 euroko fidantza ordaindu eta pertsonazioa gauzatu zuen, Miguel Castells abokatuak izendatuz", azaldu zuten.

Hori dela eta, "udal akusazioaz gain, egun lasarteoriatarren interesen defentsa ziurtatuko duen akusazio partikular bakarra denez, Lasarte-Oriako EHBilduk

bere babes ematen dio Pablo Barrio jaunari une honetan".

Mozioa udalbatzarrean


Bestalde, Lasarte-Oriako alkatearen jokaera gaitzesteko eta Miguel Castells abokatuari egindako lana eskertzeko Lasarte-Oriako EHBilduk mozio bat aurkeztuko du asteartean izango den ohiko Udal Batzarrean. Hau seigarren puntua izango da.

Horrez gain, Udalbatzarrean bestea gai batzuk jarriko dira mahai gainean. Hala nola, 2017 urteko Ordenantza Fiskalak aldatzeko espedienteari hasierako onespene emateko proposamena egingo du Udal gobernuak, 2016/1 kreditu gehigarriaren bidez kredituak aldatzeko dosierra landuko da, Udaleko ondasun eta eskubideen 2015 urteko inbentarioan egindako aldaketak edo alkatetzak proposatutako, 'Mendebaldeko Saharari buruzko erakunde-adierazpena'.

Era berean, alderdi zein herritarrek galdera eta erreguak egiteko tarte izango dute.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

SARE

Ibon Fernandezaren egoera hizpide

Esklerosi anizkoitza duen euskal presoaren zigorra eteteari buruzko epaiketa hilaren 24an izango da

Lasarte-Oriako Sarek antolatutako mahai-inguruan, Ibon Fernandez Iradi euskal presoaren egoerari buruz jardun ziren Maritxu Paulus abokatu eta Ane Fernandez senidea, Sareko kide Ixiar Arteagak moderatuta. Hainbat herritar gerturatu ziren asteazken arratsaldean kultur etxeko hitzaldi aretora, Ibonen egoera gertutik ezagutzera.

TXINTXARRI

Prozesu hau borroka bat izaten ari da; galtzeko ez daukagu ezer, eta horretan jarraituko dugu". Maritxu Paulus Ibon Fernandez Iradiaren abokatuaren hitzak dira, asteazkeneko mahai-inguruan esandakoak.

Ibon Fernandezaren prozesuak, borrokak, hainbat kapitulu izan ditu azken urteotan. Horietako bat hastear da, presoaren kartzela-zigorra eteteari buruzko beste epaiketa bat egingo delako hilaren 24an. Egun horretan, dena den, "ez da ezer jakingo", Maritxu Paulus abokatuak jakinarazi zuenez: "Erabakia hilabete barru eman ohi dute epaileek; beraz, gabonetarako jakin ahal dugu zerbait, baina baliteke are gehiago luzatzea, 2017 hasiera arte, epaileek kasuari buruzko informazio gehiago eskatzen baldin badute".

Eta nolakoa da Ibon Fernandez Iradiaren gaur egungo egoera? Ane Fernandez arrebak

zehaztu zuenez, ez da ona: "Gaizki samar dabil, eritasunaren azarnak ditu. Sentsibilitate-arazoak, gorputzaren ezker partean batez ere, kosta egiten zaio lo egitea, edozein infekzio txiki kalte handiak eragiten dizkio; horri guztiari espetxeko zerbitzu eta baldintza eskasak gehitu behar dizkiogu; hasieratik egin zitekeenetik benetan egin zena alderatuta, gauza asko galdu ziren bidean".

Lehen sintomak, 2010ean

Fernandezek mahai-inguruan aipatutako "hasieratik" horrek badu data zehatz bat: 2010. urte amaiera. Orduan hasi zen Ibon gerora diagnostikatu izango zitzaion eritasunaren sintomak sentitzen. "Areagotzen joan ziren gero, gorputzeko atal desberdinetan mina sentitzen zuen; guk premiaz ospitaleratzea eskatu genuen, baina sintomak hasi eta urtebetera egin zuten", adierazi zuen Ibonen arrebak. "Oso latza izan zen prozesua; medi-



Ezker-eskuin, Maritxu Paulus Ibon Fernandezaren abokatuak, Ane Fernandez arreba eta Ixiar Arteaga Sareko kidea, mahai-inguruan.

kuei argibideak eskatzen genizkien behin eta berriro, baina esaten ziguten presoaren artean inor ez zegoela larri".

2012ko udazkenean eritasunaren agerraldi gogor bat pairatu zuen Ibonek. Toulouseko Purpan ospitalean hainbat proba neurologiko egin, eta 2013ko urtarrilean jaso zuen diagnostikoa: esklerosi anizkoitza. Une horretan eskatu zuten kartzela-zigorraren etetea, Paulusek nabarmendu zuenez: "Argitu behar da eskatzen duguna zigorra etetea dela; berez, Ibonek zigorraren 20 urte bete arte (2003an atxilotu zuten), ezingo

luke ezer eskatu, baina osasun-arazo oso larriak dituzten presoek egin dezakete. Dena den, epaitegian suspentsioa emango baligute ere, sei hilabetero mediku batek Ibon aztertu luke, eta erabaki kalean jarraitu edo espetxera bueltatu beharko lukeen".

Dei Auzitegiari, kontra

Ibonen kartzela-zigorraren etetea eskatu zuten lehenengo alditik hainbat fase igaro dira. 2015. urteko maiatzean, Parisko Dei Auzitegiak ebatzi zuen bateragarriak zirela presoaren eritasuna eta espetxean jarraitzea.

Aurtengo ekainean, ordea, Parisko Kasazio Gorteak bertan behera utzi zuen delibero hori, "gaixotasunaren tratamendua espetxean egokiro egiteko baldintzak betetzen ez direlako", Paulusek ohartarazi zuenez. Azpimarratu zuen erabaki hori ez dela ohikoa, salbuespena izan dela Dei Auzitegiaren erabakia baliogabetzea.

Ostiral honetan kultur ekitaldia egingo du Sarek, Okendo plazan, 20:00etan. Hilaren 19an Baionan 17:00etan egingo den manifestazio nazionalera joateko deia ere luzatzen du taldeak.

Enpresa txikiak sortzeko laguntzak

Lasarte-Orian merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen sektoreei lotutako enpresa txikiak sortzeko laguntza lerro berria ireki du Udalak. Enpresek eskuratu ahal dituzten gehieneko laguntzak 1.500 edo 1.800 eurokoak izango dira. Jesus Zaballos alkatea, Beatriz Juez Sozioekonomia batzordeburua eta Dioni Avila teknikariak aurkeztu zituzten laguntza berriak.

Alkateak azpimarratu modura, laguntza hauen oinarriak Lasarte-Oriako enplegu mahaian adostu dira.

Laguntzak

Itzuli beharrik gabeko finantzaio-lerro berria 24.400 eurokoa da.

Udaleko arduradunek azaldukoaren arabera, laguntza hauekin finantza daitezkeen gastuetako batzuk enpresa eratze-ko gastuak, errentamenduko



Jesus Zaballos alkatea, Beatriz Juez Sozioekonomia batzordeburua eta Dioni Avila teknikaria diru-laguntza berrien aurkezpenean.

gastuak edo pertsona enplegatutako kontratatze gastuak dira.

Agerraldian azaldu legez, diru-laguntza gehienez diruz laguntzekoak diren gastuen %40koa izango da, gehieneko kopurua 1.500 eurokoa delarik.

Hala ere, hiru salbuespen egongo dira: Eragin Komertzial Maximoko Eremutik kanpo kokaturiko establezimenduak, erretiroagatik eskualdatu diren

enpresak edo eskatzaileak gutxienez %33ko desgaitasuna aitortua badu. Kasu hauetan, diru-laguntza gehienez ere %60koa izango da eta 1.800 eurora arte eskuratu ditzakete onuradunek.

Programa honetan aurreikusitako laguntzak ezingo dira diruz lagundutako gastu berenagatik jasotako beste edozein laguntzari metatu.

Eskaerak

Laguntza hauetako onuradun izateko 2016ko urtarrilaren 1etik martxoaren 4ra bitartean Lasarte-Orian merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonalen prestazioko enpresa berri bat sortu duen pertsona fisiko nahiz juridikoa izan behar da.

Proiektuak aurkezteko epea 20 laneguneko da,

GAOn argitaratu zen egunetik aurrera, lehenengo ostiralean.

Eskaerak Udala erregistroan sartu beharko dira eta negozioaren bideragarritasun programa bat aurkeztu beharko dute.

Alkateak azaldu modura, itzuli beharrik gabeko laguntzak dira eta Udalak proiektuek bideragarritasun bat izatea nahi du.

Dioni Avila Sozioekonomia arloko teknikariak azaldu zuenez, enpresei dagoeneko eskutitza bidali zaie eta bideragarritasun plana egiteko bilarako ekintzaile-zerbitzuaren laguntza izan dezaketela azaldu zaie.

Laguntzen oinarriak edo informazio gehiago azaroaren 4ko GAOn, Udalaren web gunean, 943 376 179 telefonora deituz edo d.avila@lasarte-oria.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz eskuratu daitezke.

Akordeoi soinuez gozatzeko jaialdia

Arratsaldeko 19:00etan izango da kontzertua Manuel Lekuonan

Zero Sette akordeoi orkestrak antolatutako XIII. Akordeoi jaialdia izango da larunbatean. Aurtengoan, herriko taldeak protagonismo guztia utziko die bisitariei. Horrela, oholtzan izango dira Julien Gonzales akordeoilari frantsesa, Clak'Tet taldea eta Susana Cencillo eta Javier Perezek osatutako bikotea. Zero Settek azpimarratu duenez, goi mailako musikariak dira denak.

Beste urte batez herriko Zero Sette akordeoi orkestrak udaleko Kultura sailaren laguntzarekin, Akordeoi jaialdiaren edizio berri bat, XIII.a antolatu du larunbatean, azaroaren 12an.

Julien Gonzales, Clak'Tet eta Susana Cencillo eta Javier Perez arituko dira Manuel Lekuonako auditorioan.

Aurten lehenengoz Zero Settek ez du emanaldirik eskainiko kanpotik ekarritako artistei protagonismo guztia eskaintzeko.

Puntako gonbidatuak

Julien Gonzales da gonbidatuetako bat. "Estilo askotara moldatzen den musikaria da. Jazz doinuak, tangoa, frantziako musette-a, musika klasikoa edota ekialdeko doinuak eta musika garaikidea ere maisuki interpretatzeko gai da" adierazi du Zero Settek.

Gonzalesek hamabi urte zituenetik kontzertu eta nazioarteko lehiaketetan parte hartu du.

Ondorioz, munduko akordeoilari onenaren saria jaso zuen 2003 eta 2005 urteetan junior mailan eta 2006 eta 2010ean senior kategorian. Beste hainbat sari ere eskuratutakoa da.

Egun, kontzertu emaile, lehiaketa askotako epai-mahaikide, irakasle eta aholkulari artistikoa da. Azken urteetan antzerkiera ere jauzi egin du.

Clak'Tet taldeak "ikusleak txundituko ditu" aipatu du Zero Settek. Akordeoi doinuaren erritmoan, klaké dantzariak oinak astinduko ditu soinu metalikoa musikarekin uztartuz.

Swing, jazz eta musika brasildarreko doinuak interpretatzen dituzte, besteak beste.

Herialde ezberdinetako musikariak dira taldekideak, Italia, Frantzia eta Euskal Herrikoak.

Roberto Gervasi akordeoilaria, Yannis Constans gitarratzailea, Camille Wolfrom



Eric Bouvelle akordeoilaria izan zen iaz bere taldearekin Manuel Lekuonan.

kontrabaxua eta Sagari Ur dantzariak osatzen dute taldea.

Gervasiren kasuan, "Italia osoan jazz musikari autodidakta bakarrenetakoa dela esaten da beragatik. Musika oso pertsonala egiten du". Egun, 'My Jazz Accordion' taldearekin Italian zein kanpoan kontzertu asko eskaintzen ditu ere.

Azkenik, jaialdia zabaltzeko ardura izango dutenak, Susana Cencillo akordeoilaria eta Javier Perez tronpeta joleak osatutako bikotea izango da. "Ez da ohikoa akor-

deoia eta tronpetak bat egitea. Oso kanta eta melodia ezberdinak interpretatzen dituzte, euskal kantak, bossa novak, Frantziako musika... eta gainera inprobisazioan aritzeko ausardia ere badute" azaldu dute Zero Sette akordeoi taldeak.

Biek esperientzia luzea dute eta bide ezberdinak egin ostean, 2015. urtean elkartu eta duetoa osatzea erabaki zuten.

Sarrerak

Kontzerturako sarrerak dagoe-

neko eskuragarri daude Manuel Lekuona kultur etxean 3 euroren truke. 16 urtetik beherakoentzat sarrera doakoa izango da aurreko edizioetan egin bezala.

Emanaldia 19:00etan hasiko da eta beste urte batez, Zero Settetik herritarrak animatu nahi dituzte honetara gerturatzeko.

"Kontzertu ederraz gozatzeko aukera izango da. Estilo ezberdinetako doinuak entzungo dira gustu guztiak asetzeko modukoa izango da".

Idoia Cuesta herritarraren lana Cristina Enean

Galizian bizi da aspaldi Idoia Cuesta lasarteoriatarra. 2015ean jaso zuen "saskigintza tradizionalari ikuspegi berritzailea emateagatik", estatu mailan artisautza alorrean ematen den sari gorena. Oraingoan, Cristina Enea Fundazioak gonbidatuta, hainbat lan ekarri ditu Donostiako egoitza horretara eta tailer bat ere eskaini du.

Idoiari asko gustatzen zaio etxera bueltatzea eta are gehiago bere lanak erakusteko parada aitzakia izanda.

Urriaren 20ean Egia auzoan kokatuta dagoen Cristina Enea parkeko ingurumen baliabideen etxean zumezko eskultura artistikoei buruzko ikastaroa eskaini zuen.

Honetan 'habia-teknika' erabiliz, zumezko bi eskultura handi egin ahal izan zituzten parte hartzaileek. "Naturan eta txoriek beren habiak egiten dituzten moduan oinarrituta".



Ikastaroan burututako bi eskultura handiak Idoiak berak jarri zituen eta oraindik ikusgai daude.

Teknika hau bolumen handiko lanak egiteko baliogarria dela erakutsi zuen herritarrak.

Haria galtzen

Horretaz gain, erakusketa bat ere jarri da bertan eta abenduaren 11a arte izango da ikusgai. 'Haria galtzen' izena jarri diote eta nolabait Euskal

Herrian ehungintza tradizioa galtzen ari dela eta, gure ondareari zein lotuta dagoen azaltzen du. Jasotako tradizio horretan oinarrituz, praktika honen etorkizunean arreta jartzea du helburu. Eta horretarako, Idoiak eta beste artisau batzuek egiten dutenari garrantzia eman zaio honen

baitan. Cuestak urteak daromatza saskigintza tradizionalako teknikak erabilita esperimintatzen. "Saskigintza ez da bakarrik saskiak egitea, aplikazio pila ditu. Teknika ezagututa, arkitekturari, moda diseinuan, etxe barruko diseinuetan aplika daiteke oso emaitza onekin".


Idoiak aurkezten dituen bildumetan ere, materialekin jokatzeko du, diseinuekin... Teknika tradizionalak ezagutu eta hauek erakustearan beharra nabarmen dituzte, ondare gal ez dadin batetik eta bestetik, egun diseinuan erabat erabilgarriak direla argudiatuz.



Bigarrenengo Ahobizien lekuko aldaketa



Irten armairutik!



Erritmoz beteriko aldaketa

Ostiralean, 40 eguneko bigarren txanda amaitu eta hirugarrenari hasiera eman zitzaion.

Txandetako kideek ikerketarako datua batzuk eskaini, Esti Garmendia eta Agus Mujika zortzikoteko kideen umoreaz eta dantzeta gozatu eta txapa aldaketa egin zuten.

Ostean, Dinbi Banda batukada taldearen erritmo biziari esker, Jalgi Kafe Antzokira jaisteko gonbita egin zitzaizkien.

Bertan pote baten inguruan, Ahobiziek eta Belarriprestek bizipenak partekatu ahal izan zituzten.



Andrea Gonzalez
Bigarren txandako
Ahobizia

Zer moduzko esperientzia izan da Ahobizi izatea?

Azken batean erronka honen helburua nire lehen hitza euskaraz izatea zen, eta egunerokotasunean gehienbat euskaraz egiten dudanez nahiko erraza gauzatu zait.

Familian esaterako, zailtasun pixkat duen kidearekin praktikan jartzean, behintzat saiatzen zen euskaraz erantzuten, nahiz eta batzutan ez lortu. Bestalde, nire lagun taldean adibidez badaukagu ohitura txar bat, gaztelaraz egitea. Nahiz eta denok jakin euskaraz hitz egiten, askok gure artean gaztelariak egiten dugu. Aho-biziren esperientziaren esker aitzakia bat nuen dena euskaraz egiteko, eta egia esan hasiera batean arraroa egiten zitzaidan bai niri bai nire lagunari, hasieran batzuk erderaz erantzuten zidaten, baina

azkenean gure konbertsazioa euskaraz izaten bukatzen zen. Erronka ezagunekin bideratuz, hitz egiten genuen gutxi hori erderaz erantzuten zidaten gehienbat, askok ez zutelako ondo menderatzen hizkuntza.

Azken batean esperientzia honekin argiago geratu zait euskara ez erabiltzeko arrazoia erosotasuna eta alferkeri hutsa dela. Behin ohitura sartu zitzaigun gaztelaraz egiteko eta orain ez dugu esfortzurik jartzen hori aldatzeko, ez digulako eragozten. Nire inguruko jende gehienak euskara aise menderatzen du eta ez du arazorik erabiltzeko, baina ez dutenez beharrezkoa ikusten euskaraz egitea, ez da behar bezain beste erabiltzen, horregatik espero dut bai ni eta bai haiek konturatzea gaztelara bezain ondo erabili dezakegula gure hizkuntza gure artean hitz egiteko.



Boris Nogales
Hirugarren txandako
Ahobizia

Zer lortu nahi duzu esperientzia hau biziarekin?

Gaztelaraz hitz egin ohi dudana gertukoekin euskaraz hitz egiteko ohitura lortzea dut helburu aste honetan. Urteetan pertsona horiekin gaztelaraz egin dut eta buelta ematea ez litzateke gaizki egongo. Esate baterako, arrebarekin beti gaztelaraz egin ohi dut, nahiz eta ingurukoak euskaraz egin eta ohitura hori aldatzea ederra izango litzateke.

Gainera, esperientzia polita iruditzen zait. Kalean Belarriprest modura espero ez nuen jendea ikusi dut eta lagun batekin ere sorpresa ederra eraman dut. Urte-tako inertziak gaztelaraz hitz egitera eramaten zaitu pertsona batzuekin. Baina euskaltegian dago euskara ikasten, nik ez nekien, eta lehengoan ni Belarriprest nintzela ikusi eta euskaraz egin zidan. Politia iruditu zitzaidan egindako esfortzua.

Informazioa: Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)

Adineko pertsonen laguntasuna emanez

Lasarte-Orian 'No estás sol@- Ez zaude bakarrik' elkarteak sortu berri da. Helburu nagusia helduen bakardadea, isolamendua eta afektu gabezia arintzea da. Pixkanaka zenbait ekintza eramango dituzte aurrera, hala nola, pertsona adinduen etxeetara joan haiek laguntzera. Elkarteak boluntarioak edo pertsona adinduen eskaerak behar ditu.

Lasarte-Orian biztanleriaren %20tik gora bakardadean bizi da eta errolda datuen arabera 65 urte gainditzen dituzten 700 pertsonatik gora bizi dira egoera honetan.

Egoera honi irtenbidea bilatzeko, Lasarte-Orian 'No Estás Sol@-Ez Zaude Bakarrik' elkarteak sortu da. Elkarteak azaltzen duen modura, adinekoei laguntasuna emateko elkarteak da eta boluntarioek osatzen dute.

Helburuak

Helburu nagusia helduen bakardadea, isolamendua eta afektu gabezia ekiditea diren arren, honen barruan beste helburu batzuk ere baditu elkarteak.

Baztertuta edota bakardadean eta baliabide murriztuekin dauden adinekoen autoestimua eta bizi-kalitatea hobetu nahi du elkarteak.

Horretarako, gaitutako boluntarioek laguntza emozionala, laguntasuna eta adiskidetasuna eskainiko diete, afektuzko loturak sortuz.

Honetaz gain, pertsona edadetuek bizi duten egoeraren lekuko izan nahi dute. Lan honi esker, jendearen sentsibilizazioa bultzatuko dute. Proposamenak aurkeztu eta administrazio publikoari eta gizarteari dagoen ekintza premiaz ohartaraziko dute.

Ekintzak eta laguntza

Elkarteak jarduera ugari egingo ditu, hala nola, adinekoei topaketak eta bestelako jardueren antolaketa, gizarte sentsibilizazioa eta nagusien autonomia sustatzeko ekimenak bultzatu.

Baina nagusia, adinduen bizitokian laguntasuna ematea izango da. Programako



no estás sol@
ez zaude bakarrik
ASOCIACIÓN PARA EL ACOMPAÑAMIENTO A MAYORES

NOR GARA? ZER EGITEN DUGU? BOLONDRESA EGIN KOLABORATU BERRIAK HARREMANA



'No estás sol@- Ez zaude bakarrik' elkarteak lanean da gure herrian, web orrialdea ere martxan dute.

bazkideek boluntarioen bisita jasoko dute etxean.

Horregatik boluntarioak behar ditu elkarteak. Elkarteak kideek azaltzen duten modura, "belaunaldi desberdinen arteko elkarbideak eraike nahi ditugu gizarte solidario eta bateratzaile bat lortzeko".

Era honetara, herritarrak animatzen dituzte boluntario gisa lan egitera.

Proiektua

Elkartearen ideia 2014 urte

amaieran sortu zen eta Kooperatzen-en bidez, hau da, ekin-tzaileen ideiak enpresa sozial edo kooperatibo bihurtuko dituen formakuntza landu zen.

Iaz IMPULSA lehiaketara aurkeztu zen proiektua eta Estatu mailan, 3 proiektu bozkatuenetako bat izan zen. Sariari esker, elkarteak abiarazteko oinarri ekonomikoa lortu zuten.

Informazioa eta parte-hartzea

Elkarteak web orrialdean, asociacionnoestassolo.org

aurkitu daiteke informazio gehiago.

Era berean, ekartearen parte hartu nahi edo honen bazkide izan nahi duen pertsona orok hainbat bide ditu: 617 910 656 edo 943 575 964 telefono zenbakietara deitu, info@asociacionnoestassolo.org helbide elektronikora mezu bat bidali edo elkartearen egoitzara, Blas de Lezokalea 11-13 behean, Danok Kideko lokala, hurbildu daiteke asteazkenetan eta ostiraletan 11:30tik 13:30era.

SASKIBALOIA.

Puntu gutxiko aldearekin garaipena etxeko neskentzat

Ostadar SKT-ko Probintzialeko Senior neskek 76 eta 73 irabazi zuten Bera-Beraren aurka.

Ostadar SKT-ko Probintzialeko Senior nesken taldeak Bera-Bera Saskibaloitza Taldearen aurka jokatu zuen norgehiagoka igandean, herriko Udal Kiroldegian. Etxeko taldeak azken unera arte jokoa gogor borrokatuta, garaipena eskuratu zuen luzapen tartean.

TXINTXARRI

Puntu gutxiko aldearekin amaitu zen igande goizean Ostadar SKT-ko Probintzialeko Senior nesken taldeak eta Bera-Berak jokatu-tako norgehiagoka, baina etxeko taldeak lortu zuen garaipena. Ligako talderik onenetariko bat izan zuen aurkari Ostadar SKT-k, baina zailtasunak zailtasun, garaipena eskuratu amaitu zuten partida.

Ostadar SKT-rentzat gauzak ondo hasi ziren lehen laurdenean. Tarte horretan joko ona egin bazuten ere, Bera-Berak etxeko taldearen akats guztiak zigortu eta saskiratze errazak lortu zituzten partidaren lehen zatian. Gauzak horrela, jokoa defendatu zuten herriko neskek, baina markagailuan 13 eta 16 punturekin atzetik zirela joan ziren lehen atsedenaldira.

Bigarren laurdena aldiz, ez

zuen nahi bezala hasi Ostadar SKT-k. Baloi ugari galdu zituen etxeko taldeak eta jokoa defendatzen jarraitu bazuten ere, 13 eta 23 puntuko aldearekin aurretik jarri zen Bera-Bera. Egoeraren aurrean, Ostadar SKT-k erreakzionatu eta 15 eta 0ko partziala eginda, aurre hartzea lortu eta bigarren laurdena, 32 eta 29 punturekin amaitu zuten, herrikoak aurretik.

Nagusi izan ziren hirugarren laurdeneko zati osoan etxekoak. Bost eta sei puntuko aldea lortu zuten Ostadarreko neskek, baina aurkariak bi puntuko gerturaztea lortuta, ez zuten alde egiterik hirugarren laurdena amaitzerako.

Laugarren laurdenean, ordura arteko jokoa mantenduta, aurkariak bi hiruko saskiratze egin eta aurretik jarri zen Bera-Bera. Minutu baten faltan, beste hiruko saskiratze bat eginda, 65 eta 59 markagailuan atzetik ziren Ostadar



Ostadar SKT Probintzialeko Senior nesken taldeak Bera-Bera izan zuen aurkari, igandean, Udal Kiroldegian.

SKT-ko neskek.

Gauzak horrela, partidaren amaieran etxeko taldeari falta egin eta lau segundoren faltan zirela, bi puntugatik galtzen zihazela, bi jaurtiketa libre saskiratzea lortu eta luzapeneko tartera joan ziren bi taldeak.

Nekatuta ziren ordurako bi taldeak luzapen tarte horretan, baina 75 eta 73 punture-

kin aurretik jartzea lortu zuen Ostadar SKT-k eta partidaren azken unean, falta egin zioten etxeko taldeari eta markagailuan puntu bat gehituta, 76 eta 73eko puntuazioarekin eskuratu zuen garaipena Ostadar SKT.

Denboraldi txukuna

Liga hasi zenetik denboraldi 'oso txukuna' egiten ari dira

Ostadar SKT Probintzialeko Senior neskek. Lehenengo aldia da, aurtengoa, senior mailako taldea osatu dutena eta ligako talderik gazteena da aldi berean. Denboraldian zehar, bost partidu jokatu dituzte oraingoz eta horietatik guztietatik, lau garaipen eta porrot bakarria erdietsi dute Ostadar SKT-ko Probintzialeko Senior neskek.

TRIATLOIA.

Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldea, 2017 denboraldia prestatzen

Datorren urteko denboraldia diseinatzen hasia da Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldea. Aurten sortu da, eta 14 kirolarik osatzen dute, oraingoz. Triatloi taldea da, baina duatloi eta triatloi federazioan daude federatuak. Hortaz, duatloia egin gura duten herritarrek ere Trinkorekin federatzeko aukera daukate.

Triatloiak hiru kirol diziplina biltzen ditu: igeri eta korrika egitea eta bizikletan aritzea. Trinkoko kideek hiru modalitate horietan aritzen den edonor gonbidatzen dute eurekin aritzera. Gainera, gogorarazten dute bizikleta-irteerak egiteko seguru bat edukitzea komenigarria dela. Trinkorekin federatuz gero, abantaila hori eduki dezake kirolariak, taldean irteerak dauzkan onurekin batera.

Korrika entrenamenduak ere taldeka egiten dituztenez, triatloia edo duatloia egiten ez

duten korrikariak ere hasi dira animatzen. Trinkoko kideek zehaztu dutenez, prest daude korrikarientzat taldeko entrenamenduak prestatzeko, baita igerilarientzat ere, hala nahi balute.

Taldekideekin harremanetan jarri nahi duten pertsonak hainbat bide dituzte. Batetik, idatzi dezakete lasartetriatloi@gmail.com helbidera. Bestela, 695 743 330 zein 635 736 852 telefonoetara hots egin dezakete. Taldeari buruzko informazio gehiago ere topa daiteke Trinkoren Facebook eta Twitter orrialdeetan.

Bizikleta-irteeren egutegia

Arestian aipatutako bizikleta-irteeren bueltan, aipagarria da berrikuntza bat prestatu dutela Trinkoko kideek datorren sasiora begira: urtarriletik ekainera bitarteko egutegia. Hilabete horien arteko irteerak jaso

dituzte egutegi horretan; kilometro kopurua progresiboki igoko dute. Jakinarazi dutenez, bi egingo dituzte hilabete bakoitzeko, larunbat edo igandetan, Okendo plazatik goizeko bederatzietan abiatuta.

Euren sare sozialetan eta herriko hedabideetan emango dute egutegi horren berri, aurrerago.

Material-eskaera

Taldeak kirol-materiala ere atera du aurten. Proba desberdinetan oso presente egon dira berde eta beltz koloreak. 2017ra begira, beste eskaera bat egin behar dute. Hori dela eta, interesa eduki dezaketen pertsonak taldekideekin jarri behar dute harremanetan, aurrez aipatutako bide horiek erabiliz. Behin hori eginda, Trinkoko kideek materialari buruzko aukeren berri eman gero diete interesatuei.



Herriko krosetan hainbat taldekideek hartu zuten parte.

ISAAC FARRÉ RICO

Triatloian murgilduz

"Hasiere batean, errespetu handia ematen du triatloiak; jendeak probatzeko beldurrik izan ez dezan, prest gaude, ahal dugun heinean, lasterketa egunean eta lehenago behar den prestaketan laguntzen. Esperientziaduna edo berria izan, guztiak daukate tokia Trinkon", aipatzen dute.

Horri lotuta, triatloia probatu nahi duten emakumei ere taldean sartzeko gonbita luzatzen diete Trinkoko kideek: "Emakumeen presentzia urria da triatloian; gure taldea ikusi besterik ez dago, 14 kideak mutilak baikara. Anima daitezela, egin beharreko bidean laguntzeko prest gaude eta".

Etorkinen egoerari buruzko hausnarketa

Asteazkenetik larunbatera, Topaketa asteako ekintzak izango dira

Gaur egun milaka dira guda, gosea edo beste egoera batengatik bere herrialdea utzi behar izan duten pertsonak. Lasarte-Oriako herritarrei pertsona hauek bizi duten egoeraz kontzientziatzeko asmoz, Topaketa asteak antolatuta dira. Hainbat ekintzek osatzen dute aste berezi honetako egitaraua. Horien artean, Jose Luis Pinilla Apezpiku-konferentziako Migrazio idazkaritzako zuzendariaren hitzaldia nabarmentzen dute antolatzaileek.

TXINTXARRI

Lehenengo asteazkenean, azaroaren 2an, 'Somos migrantes' erakusketak atek ireki zituen Antonio Mercero erakusketa aretoan.

Lasarte-Orian Andatzazpi Pastoral Barrutiak, Gipuzkoako Caritas elkarteak eta Etorkinen pastoraltzak elkarlanean antolatutako Topaketa astearen ekintzetako bat dugu hau.

Etorkinen eskubide urratuak

'Somos migrantes' erakusketa Entreculturas elkarteak osatutako da. Honetan munduko komunikabide ezberdinetan etorkinen egoera irudikatzen argitaratutako argazkiak aurkitu daitezke.

Era berean, herrialde ezberdinetan etorkinek gainditu beharreko mugak eta haiek bizi dituzten egoerak ezagutzera ematen dira.

Helburua etorkinek pairatzen dituzten eskubide urratetarako salatzea da. Izan ere, herrialde batetik ateratzeko eskubidea pertsona guztien oinarritzko eskubidea baita.

Herritarrek astelehenetik ostiralera 18:00etatik 19:00etara izango dute erakusketako ikusteko aukera. Azaroaren 15ean, asteartean esposizioaren azken eguna izango da.

Hausnarketa

Erakusketa honetaz gain, beste hainbat ekintzek osatuko dute Topaketa astea: hitzaldia, filma, ekintza isila eta elkartasun afaria.

Honek guztiak gaur egun munduan eta batez ere, Estatura iristen diren etorkinek bizitzen duten egoerari buruzko hausnarketa bideratzea du helburu.

Antolakuntzako kideek Felix Garitanok Ama Brigitarren komentuko kapilauak Topaketa astearen egitarauko eskuorrian idatzitako hausnarketa azpimarratzen dute.

Honetan Garitanok honako hitzak hauek idazten ditu: "guztiak izan gara etorkin lehenago edo beranduago. Ezin dugu pentsatu euskaldunak beti egon ginela hemen; gure arbasoek ziurrenik Afrikatik emigratu zuten eta bertan gelditu ziren, gure herrian".

Honela jarraitzen du, "2016 urtean orban handiak ditugu, hala nola, gudak, gosea, aberatsek esplotazioa sustatzen dute...Honek 65 milioi pertsonen haien etxeak uztea ekarri du. Gehienak errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira. egunen batean bertatik ateratzeko esperantzarekin, bizi ahalko diren lur baten bila; batzuk pausoa ematera ausartzen dira, saia-



Hainbat herritar hurbildu dira aste honetan 'Somos migrantes' erakusketa ikustera.

keran bere bizi utziaz, gaur egungo Mediterraneoaren kasu, zein errefuxiatuen hilerri bilakatu den. Gure Europa liberal eta zaharra, ongizate-estatuan dagoena, leku guztietan sarraila jartzera bultzatu gaitu, etxeetan, mugeetan, jabetzetan... Era honetera, etorkin hauen etorrerak, beste herrialdeetako ohitura, erlijio edo jokaerak, gure bizitzan izan dezakeen kutsadura ekiditeko asmoz".

Garitanoren iritziz, "Porrot handia da 2016an ditugun baliabide guztiak gizateriak gosea, errefuxiatuen mundua, Siria, Irak, Nigeria, Somalia edo Kongoko Errepublika Demokratikoko gerra-konfliktuak ezin gainditzea".

"Guztiok dakigu migrazio masa handien harreraren arazo korapilatsua dela; iren-bide onena haien lurraldea eta etxea, hain kultura, ez uzteko laguntza ematea izango litzateke," aipatzen du.

Era berean, kulturaren tal-kari buruz ere mintzatzen da du bere idatzian, "Europara datozenean, ezin dugu ahaztu beste kultura batetik datozela, ez daudela gure erara lan egitera ohituak, gu bezala jaztera ohituak edo gu bezala otoi egitera ohituak; belaualdi bat beharko dute horretarako ohitzeko".

Etorkinak gure sistemaz baliatzen direnak pentsatzen dutenez ere hitzak ditu, "Giza errealitatea ez da perfektua eta etorkin horien artean gure biziza egoeraz baliatzen direnak egongo dira, baina ez da hori guztien joera. Inork ez du bere herrialdea utzi nahi eta are gutxiago bizia edo kapitala jokatu herrialde batera joan eta onartuko zaituen ez dakizunean".

Hitzaldia eta ekintza isila

Era honetara, asteazkenean, Manuel Lekuona Kultur etxe-ko hitzaldi aretoan, 19:00etan Topaketa aste honetako bigarren ekintza izango da, hitzaldia.

Jose Luis Pinilla Apezpiku-konferentziako Migrazio idazkaritzako zuzendari etorkinen egoerari buruz mintzatuko da 'Migrantes y refugiados. Iconos que nos interpelan' izenpean.

Antolatzaileek azaldu digutenez, Jose Luis Pinilla Apezpiku-konferentzian migrazioaren arloan lan egin du urte askotan, beraz, gaiari buruzko asko daki eta "oso interesgarria izango da haren hitzak entzutea".

Ostegunean, berriz, 18:30ean Donostiako 'Circulo del Silencio-Isilune Zirkulua' taldeko kideek ekintza isila egingo dute Okendo plazan.

Talde hau hilabeteko hirugarren ostegunetan batzen Donostiako Gipuzkoa plazan eta Europako etorkinen eta errefuxiatuen elkartasuna adierazteko 15 minutuko ekintza isila egiten dute. Elkarte erlijioso eta laikoek bat egiten dute ekimen honetan.

Oraingoan gure herria hurbilduko dira. Herritarrei honekin bat egiteko gonbita egiten diete antolatzaileek.

Afrikako etorkinak

Ostirala eta ostiralean berriz, Espainiar Estatuak jasotzen dituen Afrikako etorkinak izango dira protagonista.

Amparo Climenten 'Las lágrimas de África' filma ikusgai izango da ostiralean, 19:00etatik aurrera Manuel Lekuona Kultur etxe-ko hitzaldi aretoan.

Espainiar Estatuan sartu nahi duten eta Marokoko kanpamentuetan dauden etorkinen egoera aurkezten du egileak. Horretarako, Gurugu eta Bolingoko kanpamentuetan, etorkinen artean mugitu eta haiekin hitz egiten du, baita Maroko eta Melilla artean dagoen harresia gainditzeko egiten dituzten saikeretan haiekin izan ere.

Hau guztiaz gain, larunbatean, 20:30etik aurrera, Arantzazuko Ama Parrokiako Lokalean elkartasun afaria izango da.

Honetan, 'Tierra de todos' fundazioa laguntzeko dirua jasoko dute. Afrikako etorkinei laguntzeko Cadizen harrera etxea du eta bertan hiekin lan egiten dute.

Antolatzaileek herritarrek gonbidatzen dituzte Topaketa aste-ko ekimenetan parte hartzea.



Etorkinen egoera aurkezten duten argazki eta panelak daude ikusgai erakusketan.